

2017ko uztailean argitaratu zen euskarazko titulu eta egiaztagirien arteko baliokidetzak arautzen zituen Dekretua aldatu zuen berria: 187/2017 Dekretua, uztailaren 4koa (2017/7/20ko EHAA), euskararen jakite-mailak egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen duena.

Aipatutako Dekretuak dioena betez, zure tituluaren edo egiaztagiriaren baliokidetzaren administrazioko hizkuntza eskakizunen erregistroan sartzea nahi baduzu, eskabidea egin behar duzu. **Eskabidearekin** batera honako dokumentuak erantsi behar dituzu:

- Tituluaren kopia konpultsatua.
- NANaren kopia.
- Izendapenaren edo kontratuaren kopia.

Eta helbide honetara bidali:

IVAP
Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzua
Donostia-San Sebastián kalea
01010 Vitoria-Gasteiz